

BALIOZKO PROPOSAMENA

Zer behar edo arazo konpontzen dugu?

Askotan, arropa erosterako garaian, ez dugu gure neurri perfektua aurkitzen dendak eskaintzen dituenetan, gorputz “perfekturik” existitzen ez delako. Egia den arren gaur egun neurketekin arropa sortzen duten enpresak existitzen direla, arropa formalagoetara zuzenduta daude, hau da, ekitaldi garrantzitsuetarako prestatuak, eguneroko arropa prendak ez egiten, ezta desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen arazoa konpontzen.

Beraz, gure enpresaren ereduaren zerbitzua ez da berritzailea, baizik eta modako denda askotan sumatzen diren arazoak edota beharrak asetzea.

Zerk bereizten gaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?

Gure arropa prendak pertsonalizatuak dira, hau da, bezeroaren neurrietara egokitzen dira. Horrela, desgaitasun fisikoa duten pertsonak edota neurrirako prenda bat nahi dutenen beharra aseko dugu, gaur egun behar hori asetzen duen enpresarik ez baitago merkatuan. Prendak kalitate onekoak izango dira, eta neurrietara egokitzen direnez, honek suposatzen duen lan gehigarria aintzat hartuta, prezioak altuak izango dira.